

## EGUERDITAKO EKINTZEN ESKAINTZA

Aurten ekintzak erdizka berreskuratu baditugu ere, datorren ikasturtean LHN behintzat eskaitza osoa jarri nahi dugu martxan. Hau da, **ikasle bakoitzak** berriro ere **bi ekintza** egiteko aukera izango du.

Eskaintza urtero bezala [webgunean](#) dago. Covid neurrien lasaitzearekin batera, berriro ere eguerditarako hainbat espazioa berreskuratu ditugu eta horrekin batera geldirik genituen hainbat ekintza berreskuratu ditugu: Zirkoa (Lezon) eta Dantza Modernoa (Eraikin nagusian).

Izen emateko galdetegian, ikasleak egin nahiko lituzkeen ekintzak aukeratu behar dira (gehienez bi). Behin izena emanda eta aukerak aztertuta esango dizuegu zuen seme edo alabak zein ekintza egiteko aukera izango duen, eta zein egunetan.

Ahaleginduko gara ikasle bakoitzari gustuko den ekintza esleitzen, baina ez dakigu denen kasuan lortuko ote dugun.

- Ekintzak **urriaren 3an hasi eta ekainaren 2an amaituko** dira.
- **Ekintzak 8 hilabetez kobratuko dira, hurrengo hilabeteko kuotarekin batera (azarotik ekainera).**
- Ekintza bakoitzaren ezaugarriak (irakasleak, prezioak...) webgunean azalduta daude.

[Formularioa](#) irailaren 11a baino lehen bete dezazuen eskatu nahi dizuegu. (lotura web orrian ere baduzue)

Jangelan egunerokoak ez diren ikasleek, eguerdiko ekintza duten egunetan bazkaltzeko egun bateko kuota sortu dugu. 8 hilabetez, 19.30€ ordaindu beharko dute, eta hauek ere hurrengo hilabeteko kuotarekin kobratuko dira (azarotik ekainera).

Eraikin nagusian Lide Lujanbio izango da eguerditako ekintzen arduraduna, eta Manex Egaña izango da Lezoko ikastolako. Beraiekin argitu dezakezue ikasturtean zehar sortu daiteken edozein zalantza.

Ikasleen gustuko eskaintza prestatu dugulakoan, jaso gure agurrik beroena,

Edurne Urkiola Saldias  
Lizeoko zuzendaria

